

LANDAOLA - MAKINARIA ZERBITZUAK: HITZARMENA

Alde batetik 44149333-M NAN-dun Eneko Maioz Ganboak, Landaola - Gipuzkoako Landa Garapen Elkarteen Federazioaren (IFK: G-75062398) izenean eta bestetik baserritarrentzako makinaria zerbitzu emaile den (*ordezkariaren karnetan zenbakia*)NAN-dun (*ordezkariaren izen abizenak*) -k,..... (*enpresaren izena eta IFK*) -ren izenean, hitzarmen hau sinatzeko elkarri ahalmena onartzen diote eta ondorengo adosten dute:

Makinaria zerbitzu emailearen bezeroek, Landaolak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin duen hitzarmenaren baitan, baserritarrentzako makinaria zerbitzuak laguntzeko ematen dituen diru-laguntzak jasotzeko aukera izango dutela, zerbitzu emaileak hitzarmen honetan agertzen diren puntuen baitan emandako zerbitzuei:

1. Eskainitako **zerbitzuak makinaria astunarekin ematea (eskuzko segadora, desbrozadorak... ez dira lagungarriak) eta forraje edo bazka produkzioarako bideratuak** izatea. Ondorengo zerbitzuak bakarrik izango dira lagungarriak:

- Belar lanak: Ebaki, bildu, giratu, rotoenpakatu, enzintatu, ereite zuzena.
- Artoa eta negu belarra: Lurra prestatu, erein, jaso, pikatu, remolke zerbitzua.

2. **Lanak faktura bidez kudeatzea.** Foru Aldundiaren aurrean lanak justifikatu ahal izateko ezinbestekoak izango dira fakturak. Hitzarmenaren bukaeran faktura baten eredu atxikitzen da, fakturretan eredu horretan agertzen diren datu guztiak agertu beharko dira gutxienez (zerbitzu emailearen datuak, bezeroaren datuak, kontzeptua, kopurua, zerbitzuaren prezio unitarioa, SIG kodea (probintzia, herria, poligonoa, partzela), lanaren prezio totala, diru laguntza.

3. **Tarifa finkoak izatea eta hauek bai Landaolarentzat bai baserritarrentzat argi eta eskuragarri egotea.** Aldaketarik egonez gero, aurrez adierazi beharko zaie bati zein besteei.

4. **Makinaria egokia erabiltzea eta kondizio onetan edukitzea**, baserritarrei kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko.

5. **Makinaria aseguratua edukitzea**, baita ardura zibileko polizak edukitzea ere.

6. Ogasun eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatea.

7. Lagungarri diren zerbitzuak (1. Puntuak aipatutakoak) **%30 arte izan ahalko dira lagungarriak**.

8. **Zerbitzu emaileak fakturaren diru kopuru osoa (oinarria + BEZ-a) kobratuko dio baserritarrari**.

Zerbitzu emaileak diru laguntzaren kalkulua fakturaren oinarriaren gain egingo ditu, BEZ-arengan inolako eraginik izan gabe, fakturak sortaraziko lukeen BEZ osoa aurkeztuz.

Faktura egiteko garaian, zerbitzu emaileak, lan horiei dagokien diru laguntza adieraziko du kopuru osoaren alboan. Modu honetan zerbitzua jaso duen baserritarrak Landaolatik jasoko duen kantitatearen berri izango du. **Landaolak Diputazioari zertifikazioa egin eta diru-laguntza kobratu ondoren jasoko du dagokion kantitatea baserritarrak**.

9. **Zerbitzu emaileak ezingo du beste enpresa edo autonomorik azpikontratatu**.

10. Edozein intzidentzia, arazo edo desadostasun Landaolari **idatziz jakinarazi beharko zaio**, landaola@landaola.eus helbidera edota *Goizane Zentroa, Olaeta Auzoa 6, 20247 Zaldibia* helbidera idatziz.

11. Zerbitzua ematen duten enpresa edo autonomoek zerbitzua eskaintzeko erabiliko duten **makina Landaolaren hitzarmenean erregistratua izan beharko dute**. Horretarako, jarraian atxikitzen den taulan ageri diren makinekin eskaintako zerbitzuak soilik lagunduko dira.

13. Hitzarmen honen **iraupena 2024/01/01-etik 2024/12/31** arte da. Hitzarmen hau indarrean sartzearekin batera orain arteko hitzarmenak bertan behera geratzen dira.

14. Urtean bitan, onuradunak (baserritarrak) jasotako lanen fakturak Landaolara bidali beharko ditu, **landaola.kudeaketa@gmail.com** korreora. Nahiago balu, **bailarako landa garapenerako elkartera** eraman ditzake ere. Landaola arduratuko da Foru Aldundiaren aurrean egin beharreko justifikazio txostena egiteaz, baita onuradun diren baserritarrei diru-laguntzaren zenbatekoa ordaintzeaz ere.

2024ko fakturak Landaolari bidaltzeko epeak itxiak izango dira eta epe hauen barruan bidaltzen diren fakturak onartuko dira soilik. Azken epetik kanpo bidalitako fakturen agiriak diru-laguntzetatik kanpo geratuko dira diputazioari egin beharreko zertifikazioaren epez kanpo daudelako.

Hauek dira fakturak **bidaltzeko epeak**:

1. 2024ko ekainaren 1etik 30era

2. 2024ko azaroaren 1etik 30era

15. Zerbitzua jasotzen duen esplotazioaren **titularra Gipuzkoako lurralde historikoan alta emana egongo da eta lagunduko diren partzelak Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta** egongo dira. Mugakide diren lurraldetan kokatutako partzeletan egindako lanek ez dute deskonturik izango.

16. Lanen jarraipena egiteko, zerbitzua jasotzen duen **baserritarrak partzelen SIG kodeak helarazi beharko dizkio zerbitzu emaileari** eta kode hauek faktura bakoitzean aipatu beharko dira. SIG kodeak agertzen ez diren fakturek ez dira diru-laguntzetarako kontutan izango.

17. **Diputazioko teknikariek lanen ikuskapena egin dezakete.** Praktika ez egokiren bat topatuko balitz Landaolak zerbitzu emailearekiko hitzarmena bertan behar uzteko eskubidea luke.

18. Landaola diru-laguntzak urtean-urteko lanetara bideratzera behartuta dago. Urteroko diru-laguntza kopurua mugatua denez, zerbitzuei dagokien fakturek diru-laguntzaren kopuru totala gainditzea gertatuko balitz **azkeneko zertifikazioan diru-laguntza portzentajea prorrateatua** izango da onuradun guztientzat. Edozein modutan, baserritar batek gehienez **8.000€-ko diru-laguntza metatua** jaso ahalko du urtean.

19. Hitzarmen hau sinatzeak, bertan agertzen diren puntu guztiak betearaztera behartzen ditu bi aldeak.

Landaolak zerbitzu emaileari diru-laguntzaren ordainketarako beharrezkoa duen informazio gehigarria eskatu ahalko dio.

Alkizan, 2024ko uztailaren 6an

Landaola

Zerbitzu emailea